



Irakasle eta Ikertzaileen egiaztatzeko ebaluazio-eskaerak betetzen laguntzeko gida

Aurkibidea

1. Sarrera eta prozeduraren azalpen laburra 3
2. Eskabidea betetzea 4



Obra honen edukiak Creative Commons Aitorpen-Ez-Komertziala-Lan-Eratorririk-Gabe 3.0 lizentzia bati lotuta daude. Erreproduzioa, banaketa eta komunikazio publikoa baimentzen dira, betiere egiletza behar bezala aipatzen bada eta ez bada erabilera komertzialik egiten. Lizentzia osoa hemen kontsulta daiteke: <http://creativecommons.org/>

© Unibasq – Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentzia
San Prudencio Kalea, 8, 01005 Vitoria-Gasteiz
www.unibasq.eus

Unibasq-en plantilla teknikoak egindako memoria

2024ko urtarrila

1. Sarrera eta prozeduraren azalpen laburra

Gida honen helburua, Euskal Unibertsitate Sistemako (EUS) lan-kontratuko lanpostuetarako sarbiderako egiaztapena eta unibertsitate pribatuko irakasle doktoreak egiaztatzeko ebaluaziora aurkeztu diren irakasle eta ikertzaileei laguntzea da

Programa honen xedea irakasleen eta ikertzaileen ebaluazioaz arduratzea da Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitate pribatuko irakasle doktoreen postuak eta lan-kontratuak duten postuak eskuratzeko.

Unibasq-en web guneko irakasleen atalean, programari buruzko informazio zehatza dago, arautzen duen araudiari erreferentzia eginez. Laburpen-ariketa bat eginez, figura eta baldintzak ondorengoak dira:

- Irakasle osoak: irakasle agregatuaren edo baliokidearen egiaztapena izatea.
- Irakasle agregatua: Doktore-titulua izatea eta gutxienez hiru urteko irakaskuntza- eta ikerketa-jarduera egin izana, batez ere doktoratu ondokoa.
- Ikerketa-irakasleak: ikertzaile doktorearen, irakasle agregatuaren edo baliokidearen egiaztapena izatea.
- Ikertzaile doktoreak: Doktore-titulua izatea eta hiru urteko irakasle- eta/edo ikertzaile-esperientzia egiaztatzea.
- Unibertsitate pribatuko irakasle doktoreak: Doktore-titulua izatea.

Garrantzitsua da gogoratzea Agentziaren ebaluazio, aipatutako edozein figuretako egiaztapena ematea helburu duena Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitate batean sartzeko prozesuaren fase bat baino ez dela, unibertsitateek beraiek egiten baitituzte hautaketa- eta kontratazio-prozesuak. Unibertsitateek zehaztutako irakasleak eta ikertzaileak kontratatzeke prozesuan aplikatuko diren baldintzak, irizpideak eta prozedurak. Kontuan hartu behar da, halaber, egiaztatzeak ebaluazioan gutxienezko merezimendu-maila bat besterik ez duela aitzatespen; horregatik, ebazpenak adieraziko du ebaluazioa positiboa edo negatiboa den, dagokionaren arabera, eta zer kontratu-figurarako egingo den. Halaber, ebaluazioa kontrakoa bada, dagokion batzordeak egindako ebaluazio-txostena eskuratu ahal izango da eskaera egiten den aplikazio informatikoaren bidez (<https://app.unibasq.eus/>).

Eskaeraren ebaluazioari dagokionez, oro har, aurkeztutako eskaerak, ezagutza-arloaren eta eskatzaileak adierazitako arloaren arabera esleituko zaizkio dagokion ebaluazio-batzordeari. Nolanahi ere, eskaera eskatzaileak adierazitako arloa ez den bati atxiki ahal izango zaio, eta ondorioz, beste batzorde bati esleituko zaio, interesdunari galdetu ondoren, baldin eta argudiatutako merezimenduak arlo zientifiko horri hobeto egokitzen zaizkiola ikusten bada. Batzorde bakoitzeko kideek banaka eta modu independentean egingo dute espedienteen ebaluazioa. Eskaera bakoitza batzordeko bi kidek ebaluatuko dute hasieran. Horretarako, banakako azterketa eta ebaluazioa egin ondoren, batzorde bakoitzaren batzarburuak bilkura egiteko eguna eta ordua ezarriko ditu; bilkura horretan espedienteen ebaluazio bateratua egingo da. Bilkura horren ondorioz, txosten bakarra egingo da ebaluazioaren xede den eskaera bakoitzerako. Dagokion batzordeak agentziaren organo guztientzat loteslea den ebaluazioa edo txostena egin ondoren, zuzendariak dagokion ebazpena emango du.

Agentziako ebazpenek bide administratiboa agortzen dute, eta, beraz, berraztertze errekurtsua zuzendariari berari aurkeztu behar zaio, edo administrazioarekiko auzi-jurisdikzioari. Berraztertze errekurtsua aurkeztu denean, ebaluazioa egin zuen ebaluazio-batzordeak espediente osoa berraztertu behar du. Batzordeak errekurtsua aurkeztu duenaren alegazioak, lehen ebaluazioko txostena, eta alde bien dokumentazioa aztertu behar ditu. Azterketa- eta balorazio-lan hori egin ondoren, Ebaluazio Batzordeak txosten tekniko bat egingo du. Irakasleen eta

Ikertzaileen akreditazio-programaren ezaugarriak kontuan hartuta, jakintza-arlo edo -azpiarlo espezifikoko bakoitzerako espezialisten aholkularitza eskatu ahal izango da komenigarria denean, berrikuspen-prozeduraren bermea ahalik eta gehien indartzeko, beti ere etengabeko hobekuntzaren printzipioari lotuta eta Agentziaren Etika eta Berme Kodearen printzipioekin bat etorritik; nolahi ere, azken iritzi teknikoak dagokion Ebaluazio Batzordeari dagokiolarik. Agentziako zuzendariak, ebaluazio-batzordearen txostena ikusirik, berraztertze errekurtsoari erantzun egin behar dio, eta erabaki hori interesdunari jakinarazi behar zaio, ezartzen denetik hilabeteko epean.

2. Eskaera betetzea

2.1. Alderdi orokorrak

Datu pertsonalez gain, ebaluatu behar diren merezimendu guztiak sartu behar dira eskaeraren atal guztietan. Kontuan hartu behar da hutsik dauden eskaerak ezin izango direla itxi eta ez direla ebaluaziora igaroko.

CV osoa, nahi den formatuan erantsi ahal izango da, ez da ebaluatuko; aitzitik, eskatzailearen ibilbidea testuinguruan kokatzeko balio izango du, eta ebaluatzaileek erabili ahal izango dute. Atal jakin batzuetan ekarpen kopurua mugatua denez, CV hori interesdunaren ibilbide akademiko eta profesional osoa aztertze erabili ahal izango da.

CVn adierazitako merituek eta eskaeran sartzen ez direnak ez dira kontuan hartuko.

Irakasle osoen eta Ikerketa-irakasleen figuren kasu zehatzen, eskatzaileak autotxosten bat aurkeztuko du autoebaluazio moduan, bere ibilbide akademikoaren meritu nabarmenenak jasota. Autotxosten horrek 1.000 hitzeko luzera izango du gehienez.

Merezimenduen justifikazioari dagokionez, eskaeran alegatutako merezimendu guztiak behar bezala egiaztatu behar dira, dagokion dokumentazioa aurkeztuta, ondoren zehatzen diren jarraibideen arabera:

- Mezu elektronikoak ez dira onartuko merezimenduak egiaztatze modu gisa.

Organo eskudunek erakunde-mailan emandako ziurtagiriak baino ez dira onartuko. Ordea, ez dira onartuko pertsona fisikoek edo eskumena ez duten organoek egindako autozertifikaziorik edo ziurtagiririk.

- Ez da beharrezkoa kopiak konpultsatuta egotea.
- Eskaera egiteko erabilitako aplikazioan jasotzen ez diren eta behar bezala justifikatzen ez diren merezimenduak ez dira kontuan hartuko ebaluazioa egiterakoan.
- Eskaeran adierazitako edozein merezimendu justifikatu egin behar da; horretarako, jarduera egin den Unibertsitateak, zentroak edo erakundeak emandako ziurtagirien kopia erantsi behar da. Ziurtagiri horretan, ondorengo puntuetan adieraziko den informazio guztia jasoko da.
- Argitalpenen kasuan, ez da beharrezkoa kopia bat eranstea, nahikoa baita aplikazioan eskatzen diren identifikazio datuak betetzea argitaratzeko dauden artikulua kontuan hartuko dira, baldin eta behin betiko onarpena badute eta Aldizkariak edo Argitaletxeak emandako ziurtagiri baten bidez egiaztatzen badira.

Komenigarria da merezimenduak justifikatzeko dokumentuen hurrenkerak aplikazio informatikoan adierazitakoa jarraitzea, eskaeran sartutako datuen arabera, atalka eta azpiatalak.

2.2 Atalak eta azpiatalak betetzea

Eskaeraren atal eta azpiatalak betetzeko jarraibideak ondoren azaltzen dira. Informazio hau osatzeko, Unibasq-en webgunean dauden programari buruzko ohiko galderekin ere osatzen da.

Laguntza gidaren azpiatal honetan eskaeraren atalen eta azpiatalen egitura bera mantendu da, eskatzaileek beren zalantzak errazago identifikatu ahal izateko.

1. Prestakuntza akademikoa eta ikertzailea (irakasle osoentzat eta ikerketa irakasleentza izan ezik)

1.1. Unibertsitateko prestakuntza akademikoa

- Espediente akademikorako, espedientearen kopia erantsi beharko da. Unibertsitate pribatuko irakasle doktoreen figuran bakarrik baloratuko da.
- Espediente akademikoaren batez besteko nota 1-4 eskalan adierazi beharko da.
- Doktorego-tesiaren kasuan, honako hauek zehaztuko dira eskaeran: titulua, zuzendaritza akademikoari buruzko informazioa, Saila eta zein Unibertsitatetan defendatu den, zein urtetan defendatu den eta kalifikazioa. Nazioarteko Doktoretza Tesia den eta/edo Industria Doktoretza aipamena lortu duen ere adierazi beharko da; hala badagokio, euskaraz egin den ere aipatu beharko da; eta aparteko saria edota beste edozein aitzatespena jaso duen.
- Master ofizialen titulazioen, bestelakoak, graduondoko ikastaroen edo beste prestakuntza-ikastaro batzuen kasuan, honako hauek zehaztuko dira eskaeran: ikastaroaren izenburua, mota, zein Unibertsitate edo Zentrotan egin zen etairaupena (kreditu edo ordu kopurua). 6 hilabetetik gorako ikastaroak soilik baloratuko dira.
- Doktore-titulua eskuratzeko aukera eman duten masterrak ez dira kontuan hartuko.
- Hizkuntzak egiaztatzeko, honako hauek zehaztuko dira eskaeran: ikasitako hizkuntza, titulua zein erakundetan edo zentrotan lortu den, ziurtagiriaren data eta lortutako maila.

1.2. Bekak, kontratuak eta ikerketa-egonaldiak

Honako hauek zehaztuko dira eskaeran: jarduera mota eta kategoria (doktoratu aurrekoa, doktoratu ondokoa, irakasle-ikertzaile bisitariak), jarduera zer zentrotan egin den, hasiera-data eta amaiera-data.

2. Ikerketa-jarduera eta ezagutzaren transferentzia (irakasle osoen eta ikerketa-irakasleen kasuan, 1.atala izango litzateke)

2.1. Argitalpenak eta ezagutzaren transferentzia

Argitalpen mota bakoitzean 30 ekarpen jaso ahal izango dira gehienez. Irakasle osoek eta irakasle-ikertzaileek izan ezik, kasu horretan 60 izango baitira.

- Liburuak, honako hauek jasoko dira eskaeran: egilea, izenburua, argitaralekua, argitaletxea, argitalpen-urtea, orrialde kopurua, ISBN, kalitate-zantzuak eta hizkuntza, DOI eta gordailuetara lotura.
- Liburuaren kapitulua, honako hauek jasoko dira eskaeran: egilea, kapituluaren izenburua, liburu osoaren izenburua, helbidea, liburu osoaren argitalpena, argitaralekua, argitaletxea, argitalpen-urtea, eskatzaileak idatzi dituen orrialdeak, ISBN, kalitate-zantzuak eta hizkuntza, DOI eta gordailuetara lotura.

- Artikuluak, honako hauek jasoko dira eskaeran: egilea, izenburua, aldizkariaren izena, aldizkariaren zenbakia, argitalpen-urtea, eskatzaileak idatzi dituen orrialdeak. Kalitate-zantzuak (inpaktu-faktorea, aldizkariaren maila, kuartila, aipamen kopurua), ISSN eta hizkuntza ere gehituko dira, DOI eta gordailuetara lotura.

- ❖ Ez da beharrezkoa argitalpenen kopia eranstea, eskatutako datuak (ISBN/ISSN adierazten dutenak) betetzea nahikotzat hartzen baita argitalpen horiek aurkitu ahal izateko.
- ❖ Argitaratzeko dauden artikuluak kontuan hartuko dira, baldin eta behin betiko onarpena badute eta Aldizkariak edo Argitaletxeak emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatzen badira.

- ❖ Kalitate-zantzuak dituzten argitalpenak soilik hartuko dira kontuan. Halakorik adierazi ezean, litekeena da batzordeak merezimendu hori edo horiek ez baloratzea, uste duelako ekarpenak ez duela balio akademiko erantsirik, inpaktu nahikoa ez egiaztatzeagatik.

- Patenteak: erregistroan agertzen diren datuak sartuko dira eskaeran. Erregistro- eta emate-ziurtagirien kopia ofizialak erantsiko dira.
- Seiurtekoak edo ikertramoak: Seiurtekoen eta/edo ikertramoen aldeko ebaluazioa izanez gero, kopurua, bakoitza zein epetan eta noiz lortu den adierazi behar da.

2.2. Ikerketarako eta ezagutzaren transferentziarako jarduera kolektiboak

- Proiektuak, kontratuak, taldeak eta ikerketa-sareak

Honako hauek gehituko dira: jarduera mota, deialdi mota (nazioartekoa, nazionala, autonomikoa, unibertsitatekoa, beste bat), erakunde finantzatzailea, kategoria (jardueran duen erantzukizuna: ikertzaile nagusia [aurrerantzean, IN], ikertzailea edo bekaduna...), ikertzaile nagusia, jarduera egiten den unibertsitatea edo erakundea, jardueraren izena/proiektuaren izenburua, finantzaketaren zenbatekoa, hasiera-data eta amaiera-data eta emandako finantzaketa edo zenbatekoa.

Arlo kliniko kasuan, gainera, lehiatzeko deialdietako ikerketa klinikoko jarduerak –osasun-agintaritzaren eskudunek egiaztatzen dituztenak– baloratuko dira.

Unibertsitatearen edo erakundearen ziurtagiriaren kopia erantsiko da. Ziurtagiri horretan, eskatzaileek lantaldean izandako parte-hartzea eta finantzaketaren zenbatekoa adieraziko dira berariaz.

Aurretik aipatu bezala ez da baliozkoa izango proiektuetan izandako partaidetza, kontratuetan, taldeetan eta ikerketa sareetan parte hartzea ikertzaile nagusiak egindako eta sinatutako ziurtagirien bidez justifikatzea.

2.3. Kongresuak

Nazioarteko kongresu zientifikoak soilik ebaluatuko dira, eta, salbuespen gisa, garrantzi bereziko kongresu nazionalak, ezagutza-arloaren arabera. Jarduera mota (nazioarteko kongresua, nazionala, tokikoa edo beste batzuk),

erakunde antolatzailea, kongresua egin den tokia (herria, herrialdea), hasiera-data eta amaiera-data, parte-hartze mota (gonbidatutako hitzaldia, komunikazioa, posterra, mahai interaktiboa, etab.) eta izenburua jasoko dira.

Hitzaldi Oso” bat ez da “Hitzaldi gonbidatu” baten baliokidea, salbuespena izanik, tradizio handiko kongresu bat “Hitzaldia” bezala identifikatzen bada eta egiaztapen frogagarri batekin egiaztatzen bada.

Kongresuetarako komunikazioen kasuan, modu frogagarrian justifikatu beharko da hizlaria izan dela komunikazioa aurkeztu duena.

Gehienez 10 kongresu adieraziko dira.

2.4. Doktorego-tesiak zuzentzea

Doktoregaiaren izena, tesiaren izenburua, zuzendarikidea izan den ala ez, zuzendari kopurua, irakurketa-zentroa (Saila eta Unibertsitatea), irakurketa-urtea eta kalifikazioa jasoko dira; horrez gain, nazioarteko tesia eta/edo aparteko saria eta/edo euskaraz adieraziko da.

2.5. Beste ikerketa-merezimendu batzuk (irakasle osoentzat edo irakasle-ikertzaileentzat soilik)

- Ikerketa-egonaldiak

Honako hauek zehaztuko dira: jarduera mota (doktoratu ondokoa, irakasle-ikertzaile bisitaria...), kategoria, jarduera zer zentrotan egin den, hasiera-data eta amaiera-data.

- Doktoratu ondoko beka eta ikerketa-kontratuak

Jarduera mota (doktoratu ondoko beka edo ikerketa-kontratuak), kategoria, jarduera zer zentrotan egin den eta hasiera-data nahiz amaiera-data zehaztuko dira.

- Sariak

Saritutako jardueraren izenburua, saria zer erakunde ematen duen, deialdi mota eta deialdiaren data zehaztuko dira.

3. Irakaskuntza-jarduera eta lanbide-esperientzia (irakasle osoen eta ikerketa-irakasleen kasuan, 2. Atala izango litzateke)

3.1. Irakaskuntza-jarduera eta unibertsitateko irakasle-ibilbidea

- Irakaskuntza-jarduera

Mota (gradua, graduondoa, beste batzuk), ikasturtea, titulazioa, ikasgaia, zer unibertsitate edo zentrotan eman den, eskatzaileak emandako kreditu-kopurua, hizkuntza eta erakundearen irakaskuntza-asebetetzeari buruz egindako inkestetan ikasleek lortutako baloraziozehaztuko dira.

Eskatzaileak aurkeztutako irakaskuntzaren kalitateari buruzko ebaluazioak justifikatzeko, ikasleen inkesten kopia erantsiko da (inkesta horiek egiaztagiri gisa aurkezten ez badira, ez dira baloratuko).

Irakaskuntza-jardueraren ziurtagiria dokumentu ofizial baten bidez egiaztatuko da. Dokumentu horretan, emandako benetako irakaskuntza jasoko da, Saileko edo Fakultateko idazkariak sinatuko du, eta gutxienez berariaz adieraziko

da zenbat kreditu edo ordu eman diren ikasturte bakoitzean, zer kontratu mota izan den eta zer hizkuntzatan eman den.

UPV/EHUn emandako irakaskuntzaren kasu zehatzari dagokionez, GAUR webgunean eskuragarri dagoen irakaskuntza-enkarguaren informazioa duten dokumentuak erantsi ahal izango dira.

- Hirugarren zikloko eta graduondoko programen zuzendaritza eta haietan izandako parte-hartzea (ikerketak-irakasleentzat soilik)

Programa mota, programaren izenburua, programa zer unibertsitatetan edo zentrotan eman den, hasiera-data eta amaiera-data zehaztuko dira.

- Lanen zuzendaritza (tesinak, Ikasketa Aurreratuen Diploma, gradu-amaierako proiektua/lana, masterra...)

Mota, izenburua, dagokion lana zer sailetan eta unibertsitatetan defendatu den eta defentsa zer egunetan eta zer hizkuntzatan egin den jasoko da.

- Irakaskuntza-arloko argitalpenak

Irakaskuntza-argitalpenak justifikatzeko, 2.1 atalean adierazitako irizpide berak erabiliko dira.

- Irakaskuntza-berrikuntzarako proiektuak

Honako hauek zehaztuko dira: parte-hartze mota (koordinatzailea, lantaldeko kidea, etab.), deialdi mota, erakunde finantzatzailea, kategoria, unibertsitatea edo zentroa, proiektuaren izenburua, hasiera-data eta amaiera-data, zenbatekoa eta hizkuntza.

- Goi Mailako Hezkuntzaren Europar Esparrura egokitzeko proiektuetan izandako parte-hartzea

Jarduera mota, funtzioak eta hasiera-data eta amaiera-data zehaztuko dira.

- Ikasleen mugikortasuneko programetan izandako parte-hartzea (doktore ikertzaileentzat eta ikerketak-alarreko irakasleentzat soilik)

Jarduera zehaztuko da eta hasiera-data eta amaiera-data jasoko dira.

- Irakaskuntza-jardueraren eta irakaskuntza-prestakuntzaren ebaluazio positiboak

Irakaskuntzaren kalitatea egiaztatzeko Docentia, Eragin, Label edo antzeko programak erabiliko dira.

Docentia ebaluazioa edukiz gero, eskatzaileak adierazi beharko du zer urtetan aurkeztu den ebaluazio horretara eta zer puntuazio lortu duen, betiere Unibasq-ek unibertsitate horretako Docentia programaren ezarpenaren jarraipena egin badu. Merezimendua unibertsitateak emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatuko da. Ziurtagiri horretan, arestian adierazitako datuak azalduko dira. Horretarako, baliozkoa da unibertsitateak ebaluazioaren emaitza jakinaraztea. Jakinarazpena unibertsitatearen Docentia eremuan –Unibasq-ek ziurtatutakoan– aurreikusitakoaren arabera eskumena duen ebaluazio-batzordeak sinatuko du.

Hasiera-data eta amaiera-data, programaren izenburua, jardueraren nota eta laburpena eta emandako prestakuntzan izan duen eragina zehaztuko dira.

3.2. Lanbide-esperientzia

Eskaera atxikitzen zaion ezagutza-arloarekin lotutako lanbide-esperientzia soilik hartuko da kontuan. Jarduera mota zehaztuko da (besteren kontura edo langile autonomo gisa). Besteren konturako jardueraren kasuan, zer erakundetarako lan egin den, hasiera-data eta amaiera-data eta kontratu-modalitatea (lanaldi osokoa edo partzialekoa) zehaztuko dira.

Lan-kontratuaren, lan-bizitzaren kopia erantsiko da, jardueraren hasiera eta amaiera, alta eta baja langile autonomo gisa eta jarduera ekonomikoen gaineko zerga egiaztatzen dituen.

- Ekintzailletza-jarduerak

Jarduera nahiz hasiera-data eta amaiera-data zehaztuko dira.

4. Kudeaketa-jarduera

- Pertsona bakarreko kudeaketa-karguak

Betetako kargua nahiz hasiera-data eta amaiera-data zehaztuko dira.

Zerbitzu-orriaren kopia erantsiko da, edo izendapenari eta kargu-uzteari (halakorik badago) buruzko ebazpenaren kopia, edo jarduera egin den Unibertsitateak emandako ziurtagiria, aurreko paragrafoan adierazitako informazio guztia jasotzen duena.

- Batzorde instituzionaletan izandako parte-hartzea

Izandako parte-hartzearen deskribapena jasoko da, eta hasiera-data eta amaiera-data zehaztuko dira.

- Administrazio Publikorako zerbitzuak

Jardueraren deskribapena jasoko da, eta hasiera-data eta amaiera-data zehaztuko dira. Izendapenari eta kargu-uzteari (halakorik badago) buruzko ebazpenaren kopia erantsiko da, edo jarduera egin den administrazioak emandako ziurtagiria, aurreko paragrafoan adierazitako informazio guztia jasotzen duena.

- Ikerketa-proiektuen eta ikerketa-jardueren kudeaketa

Eskaeran, jarduera eta eskatzaileak jardueran izandako parte-hartzea, jardueraren deskribapena (hasiera-data eta amaiera-data adierazita) zehaztuko dira eta hori egiaztatzen duen jatorrizko ziurtagiriaren kopia bat erantsiko da (edo ziurtagiria bera, ziurtagiri digital egiaztagarria bada).